

ASKAPENA ERAKUNDE INTERNAZIONALISTAREN AURKAKO POLIZIA OPERAZIOA SALATZEN DU LAB SINDIKATUAK

Bart gauean ezker abertzaleko militanteen aurkako beste polizia operazio bat izan da. Oraingoan errepresioak Askapena erakundeko 7 kide izan ditu jopuntuan.

LABetik, beste behin, atxilotuek inkomunikazio aldian jaso dezaketen tratua gainean erabateko kezka azaltzearekin batera, lehenbailehen aske uzteko eskatzen dugu. Askapenaren "delitu" bakarra 20 urte baino gehiagoan Herrien arteko elkartasunaren eta internazionalismoaren alde lan egitea izan da, ez besterik. Berekoikeria eta indibidualismoa baloretzat bultzatzen dituen jendarte neoliberal honetan, konpromisoa, elkarlana eta elkartasun internazionalista euskal jendartean sustatzeko lanetan dihardu Askapenak. Atxilotuak izan diren 7 lagunek eta Askapenako militantziak beti norabide horretan egin dute lan, eta hori ondo baino hobeto daki Euskal Herriak.

Catalunyak, Galizak, Palestinak, Kurdistanek, Korsikak eta Eskoziak bezala, Euskal Herriak ere bere etorkizuna erabakitzearen alde borroka egiten du. Horregatik, euskal herritar ezkertiarrek beti solidarioak izan gara beste nazioekin; solidarioak, baita, ezkerreko militante gisa, Latinoamerikan bizitzen ari diren gizarte eraldatze prozesuekin ere. Arrazoi horrek eraman du euskal internazionalismoa orohar, eta Askapena zehazki, urteak joan urteak etorri brigada solidarioak antolatzen. Hamarnaka pertsonak hartu izan du parte aipatu brigadetan, duten arrakastaren adierazgarri.

Bart gauekoaren gisako errepresio operazioekin, euskal independentisten militantzia lana zigortu eta gure herriak bere etorkizuna erabaki dezan bideak irekitzeko helburuarekin abian jarri den prozesu demokratiboa sabotatu nahi dute. Egoera honen aurrean, Euskal Herriko alderdi politikoak eta erakunde sindikal eta sozialak planteamenduak egiten ari gara, euskal jendartea bere etorkizunaren jabe izan dadin, pasa den larunbatean Gernikan erakutsi zen moduan. Alta, Estatu espainiarrak, Rubalkaba buru duela, jarrera inobilista mantentzen du, eta bide errepresiboan aldeko apustuari eusten dio.

LABetik Espainiako Gobernuari exijitzen diogu errepresioan oinarritutako zurrumbilo eroari amaiera emateko; halaber, euskal jendarteari dei egiten diogu indarberritu eta mobilizazioei ekiteko, eskubide zibilen defentsan, besteak beste, parte hartze politikorako nahiz biltze eta elkatze eskubideen alde. Gaurko sarekadarekin euskal langile klaseak badu beste arrazoi bat urriaren 2an, Bilbon eskubide zibil eta politikoen alde egingo den manifestazioan masiboki parte hartzeko. Halaber, azken atxiloteten aurka deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu.



LAB DENUNCIA LA OPERACIÓN POLICIAL CONTRA LA ORGANIZACIÓN INTERNACIONALISTA ASKAPENA

Esta noche nuevamente se ha llevado una operación policial contra militantes de la izquierda independentista. En este caso la represión se ha cebado con 7 miembros de la organización Askapena.

Desde el sindicato LAB además de mostrar una vez más nuestra máxima preocupación por el trato que vayan a recibir las personas detenidas durante el periodo de incomunicación, exigimos su inmediata puesta en libertad. El único "delito" de Askapena es el de trabajar a favor de la solidaridad entre los Pueblos y del internacionalismo desde hace ya más de 20 años. En una sociedad neoliberal donde lo que se promueven son valores como el egoísmo y el individualismo, Askapena siempre ha fomentado entre la sociedad vasca el compromiso, el trabajo colectivo y la solidaridad internacionalista. Las 7 personas detenidas y la militancia de Askapena han desarrollado siempre su trabajo militante en ese sentido y en Euskal Herria lo sabemos muy bien.

Euskal Herria es un Pueblo que lucha por el derecho a decidir su futuro como Cataluña, Galicia, Palestina, Kurdistán, Córcega, o Escocia, por citar sólo algunos ejemplos. Por eso, las gentes de izquierda del pueblo vasco siempre hemos sido solidarios y solidarias con esas otras naciones, y como militantes de izquierda también con los procesos de transformación social que se están dando en Latinoamérica. Ése, y no otro, es el motivo por el que año tras año el internacionalismo vasco en general, y Askapena en concreto, han organizado brigadas solidarias en las que decenas de personas participan, lo cual ratifica el éxito de las mismas.

Operaciones represivas como la de esta noche, además de castigar el trabajo militante de las y los independentistas vascos, pretenden sabotear el nuevo proceso que se está viviendo en Euskal herria, que tiene como finalidad abrir cauces democráticos para que nuestro pueblo decida su futuro. Ante esta situación, los diferentes partidos políticos y organizaciones sindicales y sociales de Euskal Herria estamos haciendo planteamientos con el fin de que la sociedad vasca sea dueña de su futuro, tal y como el pasado sábado se vio en Gernika. El Estado español, con Rubalcaba como máximo exponente, se mantiene en una posición inmovilista y sigue apostando por las vías represivas.

Desde LAB exigimos que el gobierno español ponga fin a esta locura represiva y llamamos a la clase trabajadora y a la sociedad vasca a que se movilice con fuerzas renovadas en defensa de los derechos civiles políticos, entre ellos el de participación política, reunión y asociación.. La redada de hoy es un motivo añadido para que la clase trabajadora vasca acuda masivamente a la manifestación convocada para el próximo 2 de octubre en Bilbo por los Derechos civiles y políticos. Asimismo, llamamos a participar en las movilizaciones convocadas en denuncia de las detenciones.

Euskal Herrian, 2010eko irailaren 28an